

**BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN PILOTALEKUA ERABILTZEKO ESKAERA.
2021-2022KO DENBORALDIA.
ENTRENAMENDUAK.**

Eskatutako instalazioa: <input type="checkbox"/> Pilotalekua <input type="checkbox"/> Kiroldegia						
Kiroi-kluba:				Helbide soziala:		
FIK:				Erregistro zk.:		
Kiroi-klubeko burua:						
Harremanetarako pertsona:					tfnoa.:	e-maila:
Kiroi-mota	Maila	Egunak*	Ordutegia	E/KKE**	Datak (hasi/akitu)	Monitore nahiz entrenatzaileen hileko diru-saria
* Zehaztu: al.-ar.-az.-oz.-ol.						
**E: entrenamendua / KKE: klubeko kirol eskola .						

ESKAERA: 1. Epea: 2021eko abuztuaren 30etik irailaren 6ra. 2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaleko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoaren bidez. 3. ERABILTZEKO BALDINTZAK: 01. Erabiltzeko egutegia: 2021eko irailaren 15etik 2022ko ekainaren 30era. 02. Eskatzen ahal den ordutegia: • Al.-ar.-az.-oz.-ol.: 15:00-21:45 (Baztan pilotalekuan ezin da eskatu asteazkenak 17:00etatik 18:00etara). 03. Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldiberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu. 04. Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren edo zirkunstanzien arabera. 05. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da. 06. Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake 07. Beharrezko kirol-materiala kirol-klubak berak eraman beharko du. 08. Kirol-pistan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da. 09. Kirol-instalazioan ezin da publizitate kartel iraunkorrik paratu. 10. Instalazioan, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkien materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena 11. Eskatzaileak instalazioko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu 12. Klub eskatzailea instalazioaren erantzule izanen da baimendutako egun eta orduetan. Beraz, kirol-klubek antolatzen dituzten kirol-ekitaldietako erantzukizun guztia kirol-klubek berek izanen dute. Hori horrela, instalaziora, harmailak barne, eskatzaileak baimendutako pertsonak bakarrik sartzen ahal izanen dira, eta eskatzaileak izanen du instalaziora sartzen diren pertsonak kontrolatzeko ardura. 13. Eskatzailearen ardura izanen da instalazioa garbi eta egoera onean uztea. 14. Eskatzaileak, edozein aldaketa balitz aurrikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari (kiroldegia tel. 607251955; frontoia tel. 948452145) bai kirol teknikariari.
--

15. Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.
"41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jarduera eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.
42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla."
16. Adingabeek arduradun bat izanen dute beti.
17. Eskatzaileak onartzen ditu eskaera-orri honetan eta Baztango Udalak idatzitako COVID-19 protokoloan zehaztatutako baldintzak.